euskaldunon
Egunkaria
larunbata
1999ko abuztuaren 21a -- X. urtea -- 2.701. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

**40.000 lagunetik gora izan litezke Turkiako lurrikararen ondorioz hilak, herrialde hartako agintariek jakinarazi dutenez** • 6

# Sevillako Mundialean presoen aldeko mezua hedatu da mundura

*Presoekin Elkartasuna taldeko bi kidek agertoki nagusira bertara igota egin dute aldarrikapena*

PRESOEKIN ELKARTASUNA taldeko bi kidek Sevillako Atletismo Mundialetako *Giraldilla* maskotaz jantzita La Cartuja estadioko agertoki nagusira igo eta presoen Euskal Herriratzea eskatu zuten inaugurazio ekitaldian. Maskotek *Repatriation bask prisoners* zioen pankarta bana zeramaten soinean, eta mundu osoko telebistek zuzenean eskaini zituzten haien irudiak. Haietako batek agertoki nagusira igo eta Carlos Herrera inaugurazio ekitaldiko aurkezleari eskua eman zion, haren harridurarako. Ondoren, mundialetako kanta ofizialak iraun zuen bitartean, eta herrialdeen desfilearen hasieran, oholtza gainean egon ziren bi kideak. Ondoren, segurtasuneko arduradunek eskuburdinak jarri eta atxilotuta eraman zituzten. Gutxienez hiru lagun atxilotu dituzte. • 6



GARCIA CAMPOS / EFE

9908
narrazioak
Gaur
ARANTXA URRETABIZKAIA
'Milurte berria'


XOUSE SIMAL

## Athleticek Betis hartuko du gaur San Mamesen, milurtearen hasierako denboraldian

*Zuri-gorriek eta Realak Europa izango dute jomuga, eta Alavesek, mailari sendo eustea*



gehigarri berezia